# Pribatuen Iragarkiak

## BELAKASORO KOOPERATIBA-SOZIETATEA

IRAGARKIA, Belakasoro S. Coop. Kooperatiba-Sozietatea desegiteari eta kitatzeari buruzkoa. 19330

# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-4958

407/1999 DEKRETUA, azaroaren 16koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko Dekretua aldatzen duena.

Otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuak, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen. Aldi baterako lehenengo xedapenean zehaztutakoaren arabera, zigortzeko ahalmenaren eskumena zeini dagokion arautzen ez den bitartean, ezartzekoa izango da azaroaren 7ko 471/1995 Dekretuak -Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren jardun eremuetako zehapen prozeduraren arloko eskumenak noren esku dauden finkatzen duenak- xedatutakoa, beti ere lehengo Sailari zegozkion arloetatik oraingo Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari dagozkion arloetan.

Une honetan, bi sailon bateratzea guztiz sendotuta dagoela, komenigarria da zigortzeko ahalmenaren eskumen guztiak Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko organoen esku uztea, azaroaren 7ko 471/1995 Dekretua indargabetuz. Horrela, eskumen hori homogeneoa izango da Sailaren organo guztientzat.

Halaber, kontuan izanik azken boladan turismoak izan duen gorakada, gure ekonomiaren oinarri garrantzitsu bihurtu delarik, bai eta funtzio horizontal guztiak organo bakar batean zentralizatzeko egokitasuna ere, komenigarria da Turismo Zuzendaritza bi arlotan banatzea eta Plangintza Zuzendaritza ezabatzea, honen funtzioak Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzaren esku utziz.

Ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, lehendakariak onartuta eta

# Anuncios Particulares

## BELAKASORO SOCIEDAD COOPERATIVA

ANUNCIO de la disolución y liquidación de la Sociedad Cooperativa Belakasoro S. Coop. 19330

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-4958

DECRETO 407/1999, de 16 de noviembre, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Por Decreto 131/1999, de 23 de febrero, se estableció la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo. En la Disposición Transitoria primera se establecía que hasta tanto no se produjese una nueva regulación normativa para la atribución del ejercicio de la potestad sancionadora, resultaría de aplicación lo dispuesto en el Decreto 471/1995, de 7 de noviembre, por el que se atribuían competencias en materia de procedimientos sancionadores en las áreas de actuación del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, en aquéllas áreas del extinto Departamento que ahora correspondan al Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

En este momento, y una vez consolidada la fusión de ambos Departamentos, resulta conveniente que se proceda a completar la atribución de competencias sancionadoras a los órganos del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, derogando de este modo el Decreto 471/1995, de 7 de noviembre, de forma que la citada atribución sea homogénea para todos los órganos del Departamento.

Así mismo, habida cuenta del auge que ha experimentado últimamente el sector turístico, que se ha revelado como un importante pilar de nuestra economía, y de la conveniencia de centralizar todas las funciones horizontales en un solo órgano, se considera oportuno proceder a la división de la Dirección de Turismo en dos áreas y a la eliminación de la Dirección de Planificación, cuyas funciones serán asumidas por la Dirección de Servicios Generales.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, previa aprobación del Lehen-

Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko azaroaren 16an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

*Lehenengo artikulua.–* 1.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuaren 2. artikuluaren a) letrako 1.3. zenbakia kentzea.

2.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuaren 2. artikuluaren a) letrako 5.1. zenbakia aldatu eta honela geratu da:

«5.1.– Turismoa Sustatzeko Zuzendaritza.»

3.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuaren 2. artikuluaren a) letrari 5.2. zenbakia gehitu zaio, honela dioela:

«5.2.– Turismoa Antolatzeko Zuzendaritza.»

*Bigarren artikulua.–* 1.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuaren 6. artikuluari ñ) letra gehitu zaio, honela dioela:

«ñ) Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren arlo-planak prestatzen laguntzea eta horien jarraipena egitea.»

2.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuaren 6. artikuluari o) letra gehitu zaio, honela dioela:

«o) Sailaren gainerako organoei laguntza ematea, azterlan, txosten eta jarduera-proposamen sektorialak egiten.»

*Hirugarren artikulua.–* Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuaren 7. artikulua ezabatu da.

*Laugarren artikulua.–* Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuaren 8. artikuluari n) letra gehitu zaio, honela dioela:

«n) Dagokien eskumenaren arloan zigortzeko ahalmena erabiltzea oso larritzat jotako zehapenak ezarriz, indarrean dagoen legediaren arabera.»

dakari y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su reunión celebrada el 16 de noviembre de 1999,

DISPONGO:

*Artículo primero.–* 1.– Se suprime el número 1.3 de la letra a) del artículo 2 del Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

2.– Se modifica el número 5.1 de la letra a) del artículo 2 del Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, en los siguientes términos:

«5.1.– Dirección de Promoción Turística.»

3.– Se añade el número 5.2 a la letra a) del artículo 2 del Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, en los siguientes términos:

«5.2.– Dirección de Ordenación Turística.»

*Artículo segundo.–* 1.– Se añade la letra ñ) al artículo 6 del Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, en los siguientes términos:

«ñ) Colaborar en la elaboración de los Planes Sectoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y llevar a cabo el seguimiento de los mismos.»

2.– Se añade la letra o) al artículo 6 del Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, en los siguientes términos:

«o) Colaborar con los restantes órganos del Departamento en la elaboración de estudios, informes y propuestas de actuación de carácter sectorial.»

*Artículo tercero.–* Se suprime el artículo 7 del Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

*Artículo cuarto.–* Se añade la letra n) al artículo 8 del Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, en los siguientes términos:

«n) Ejercicio de la potestad sancionadora en el ámbito de su competencia, con la imposición de sanciones tipificadas como muy graves, de acuerdo con la legislación vigente.»

*Bosgarren artikulua.–* Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuaren 9. artikuluari f) letra gehitu zaio, honela dioela:

«f) Dagokien eskumenaren arloan zigortzeko ahalmena erabiltzea arintzat zein larritzat jotako zehapenak ezarriz, indarrean dagoen legediaren arabera.»

*Seigarren artikulua.–* Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuaren 23. artikulua aldatu eta honela geratu da:

«*23. artikulua.* Turismoa Sustatzeko Zuzendaritza.

1.– Turismoa Sustatzeko Zuzendaritza Turismo Sailburuordetzaren menpe dago eta honako egiteko hauek garatzea dagokio:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskaintza turistikoa atzerrian bultzatzea eta sendotzea.

b) Turismoa Sustatzeko eta Merkaturatzeko Ekintzen Plana ikuskatzea.

c) Turismoaren sustapenerako bestelako ekintzak koordinatzea, esaterako, etxekotzeko bidaiak eta lanbide-jardunaldiak.

d) Erakunde eta turismo-agenteen arteko merkataritza- eta turismo-sustapeneko harremanak sustatzea eta koordinatzea.

e) Erakunde eta enpresa turistikoak merkaturatzeko eta sustatzeko jarduketa-programak sustatzeko ekintzak proposatzea eta enpresen eta turismo-enpresak sortzeko ekimenei laguntza ematea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde behartsuen garapen turistikoa bultzatzea, eskumena duten beste erakunde batzuen laguntzaz.

g) Turismo-bulegoek jarduteko modua zuzendu eta ikuskatzea, beti ere, erabakitako sustapen-programekin bat.

h) Laguntza-sektorialak eta fondo estrukturalak planifikatu, kudeatu eta ikuskatzea.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-eskaintza hedatzeko eta sustatzeko materiala prestatzea.

j) Oro har, turismoaren arloan agintzen zaizkion egiteko guztiak aurrera eramatea.

*Zazpigarren artikulua.–* Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuari 23. bis artikulua gehitu zaio eta honela dio:

*Artículo quinto.–* Se añade la letra f) al artículo 9 del Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, en los siguientes términos:

«f) Ejercicio de la potestad sancionadora en el ámbito de su competencia, con la imposición de sanciones tipificadas como leves y como graves, de acuerdo con la legislación vigente.»

*Artículo sexto.–* Se modifica el artículo 23 del Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, que quedará redactado en los siguientes términos:

«*Artículo 23.–* Dirección de Promoción Turística.

1.– A la Dirección de Promoción Turística, dependiente de la Viceconsejería de Turismo, corresponde el desarrollo de las siguientes funciones:

a) Promover acciones que impulsen y refuercen la imagen turística de Euskadi en el exterior.

b) Supervisar la elaboración del Plan de Acciones de Promoción y Comercialización Turística.

c) Coordinar otras acciones promocionales como viajes de familiarización y Jornadas profesionales.

d) Fomentar y coordinar las relaciones comerciales y de promoción turística entre diferentes instituciones y agentes turísticos.

e) Proponer acciones de fomento de programas de actuación para la comercialización y promoción de entes, organizaciones y empresas turísticas y apoyar las iniciativas empresariales y de creación de empresas turísticas.

f) Impulsar el desarrollo turístico de las zonas desfavorecidas del País Vasco, en colaboración con otras instituciones competentes.

g) Dirigir y supervisar el funcionamiento de las Oficinas de Turismo, de conformidad con los programas de promoción adoptados.

h) Planificación, gestión y supervisión de las ayudas sectoriales y fondos estructurales.

i) Elaborar el material divulgativo y promocional de la oferta turística de la Comunidad Autónoma.

j) En general, desarrollar cuantas otras funciones le sean encomendadas en materia de promoción turística.»

*Artículo séptimo.–* Se añade el artículo 23 bis al Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, que quedará redactado en los siguientes términos:

«*23. bis artikulua.*– Turismoa Antolatzeko Zuzendaritza.

1.– Turismoa Antolatzeko Zuzendaritza Turismo Sailburuordetzaren menpe dago eta honako egiteko hauek garatzea dagokio:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-arloa antolatzeko jardun-programak betetzen direnentz ikuskatzea.

b) Turismoa antolatzeko prozedurak koordinatzea eta kontrolatzea: turismo-etxeen erregistroa, baimenak, erreklamazioak eta ikuskapena, indarrean dauden legeekin bat.

c) Turismoaren arloko zigor-ahalmena erabiltzea eta arintzat zein larritzat jotako zigorrak ezartzea.

d) Azterlan sektorialak ikuskatu eta kontrolatzea, estatistikaren arloko balorazioak eta azterketak egitea, merkatu-ikerlan eta -txostenak egitea (ekonomikoak, aurreikuspenezkoak...).

e) Turismo-arloa antolatzen duten arauen garatzeko proiektuak egitea eta jarraitzea.

f) Turismo-arloko plan sektorial, estrategiko eta lurralde-planak koordinatzea eta jarraitzea.

g) Prestakuntza sektorialerako planak koordinatzea eta jarraitzea.

h) Oro har, turismoaren antolamenduaren arloan agintzen zaizkion egiteko guztiak aurrera eramatea.

2.– Turismorako Aholku Kontseilua Turismoa Antolatzeko Zuzendaritzari atxikitzen zaio.»

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren jarduera-eremuari eta eskumenei eragiten dien aldetik, indarrik gabe geratzen da azaroaren 7ko 471/1995 Dekretua, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren jardun-arloetan zigortzeko prozeduren arloko eskumenak ematen zituena.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko azaroaren 16an.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Industria, Merkataritza eta
Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

«*Artículo 23 bis.*– Dirección de Ordenación Turística.

1.– A la Dirección de Ordenación Turística, dependiente de la Viceconsejería de Turismo, corresponde el desarrollo de las siguientes funciones:

a) Supervisar la ejecución de los programas de actuación en materia de ordenación del sector turístico de la Comunidad Autónoma.

b) Coordinación y control de los procedimientos de ordenación turística: Registro, autorizaciones, reclamaciones e inspección, de los establecimientos turísticos, de acuerdo con la normativa vigente.

c) Ejercer la potestad sancionadora en materia de turismo e imponer las sanciones tipificadas como leves y graves.

d) Supervisión y control de estudios sectoriales, valoración y análisis estadísticos, estudios e informes de mercado económicos, previsionales etc.

e) Elaboración y seguimiento de los proyectos de desarrollo normativo en materia de ordenación del sector turístico.

f) Coordinación y seguimiento de los planes territoriales, sectoriales y estratégicos del sector turístico.

g) Coordinación y seguimiento de los planes de formación sectorial.

h) En general, desarrollar cuantas otras funciones le sean encomendadas en materia de ordenación turística.

2.– Queda adscrito a la Dirección de Ordenación Turística el Consejo Consultivo de Turismo.»

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado, en lo que afecta al ámbito de actuación y competencias del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, el Decreto 471/1995, de 7 de noviembre, por el que se atribuyen competencias en materia de procedimientos sancionadores en las áreas de actuación del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de noviembre de 1999.

La Vicepresidenta del Gobierno,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Industria,
Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.